

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Joxe Azkue Iarza

*Donostia,
Gipuzkoa
(1938)*

Aurkibidea



Biografia



Aiete auzoko Etxetxiki baserrian jaioa, bertan bizi izan da duela urte gutxi etxea bota zuten arte. Aitak ikatza partitzen egiten zuen lana, eta amak baserriko produktuak plazara eramaten zituen saltzera: berdura, esnea eta arrautzak. Seme-alabek ere azkar ikasi zituzten baserriko egitekoak; 11 senide ziren, zazpi neska eta lau mutil. Esne-behiak, idia, txerriak, oiloak, untxiak... denetik zuten. Urte gehienak baserrian lanean eman ditu Juanjok, baina gaztetan kanpoan ere jardun zuen: igeltsero laguntzaile ibili zen bolara batean, eta Antiguako El Leon garagardo fabrian ere bai gero. Ezkongabea da. [Seberiana](#) arrebarekin egin diogu elkarrizketa.

Zintak

DON-014

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-09-18
- **Iraupena:** 77 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Gallastegi, Maddi
- **Transkribatzailea(k):** Gallastegi, Maddi

Pasarteak

1. Eskolara elkarrekin neska-mutilak

- **Erref:** DON-014/002
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:03:48. **Bukatu:** 00:06:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Neskak eta mutilak, elkarrekin joaten ziren auzoko eskolara. Irakasle

bakarra zuten, donostiarra, abila zen ikasleak zigortzen. Gaztelaniaz egin behar izaten zuten eskolan, baita Cara al Sol abestu ere.</p>

2. Umetako jolasak

- **Erref:** DON-014/003
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:06:17. **Bukatu:** 00:08:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Erositako jostailurik ez zuten garai hartan, jostailuak egin egin behar izaten zituzten; txapazko latak moztu, alanbreak jarri... Juan Joxe ehizean ere ibilia da, balinekin eta eskopeta handiarekin gero. Seberianak dio batez ere sokasaltoan, kromoekin eta tabekin aritzen zirela

3. Koadernoekin eskolara

- **Erref:** DON-014/004
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:08:44. **Bukatu:** 00:09:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan koadernoak erabiltzen zituzten, motxilan eramaten zituzten, baita trapuzko zakuetan ere, etxean eginak. Etxetik hamar minutura zuten auzoko eskola.

4. Baserriko lanak

- **Erref:** DON-014/005
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:09:42. **Bukatu:** 00:12:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Baserrian lana ugari izaten zen denentzat. Txikitatik aritu izan omen ziren itaurrean, ganaduei azpiak ateratzen, eta abar. Zazpi behi inguru zituzten, esne behiak, behor bat ere bazuten, baita idiak, untxiak, astoa eta oiloak ere. Baratzean, berriz, denetik; eskarolak, azenarioak, azelgak, letxugak... Lanik txarrena, azenarioei belarrak kentzea zela diote.</p>

5. Aita ikatza banatzen, ama San Martingo azokara

- **Erref:** DON-014/006
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:12:28. **Bukatu:** 00:15:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Aita ikatz banatzailea zen, barkutan ekartzen zuten Amarako biltegi batera, eta handik kamioiekin banatzen zuten ikatza. Seberiana amarekin joaten zen autobusez San Martingo azokara, esnea, berdurak eta arrautzak eramaten zituzten xesteretan. Udaletxeko "guardavinoei" ordaindu egin behar izaten zitzairen, zerga moduko bat, azokan postua jartzea ere ez zen debaldeko kontua.

6. Emakumeak plazara, gizonezkoak lantegietara

- **Erref:** DON-014/007
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:15:22. **Bukatu:** 00:19:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak » Gipuzkoako lantegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Xesterak zumitzezkoak izan ohi ziren, hernanitik ekartzen zituzten. Plazan herri eta auzo askotako jendea egon ohi zen produktuak saltzen, gehienak emakumeak. Mutilak lantegietan ibiltzen ziren lanean, anaia "Schuchardt" enpresan hasi zen lanean, Antiguan. Juan Joxe igeltsero peoi gisa aritu zen, 16 urterekin. Ondoren, "El León" fabrika hasi zen lanean, garagardo botilak kajetan sartzen.

7. "El León" garagardo fabrika

- **Erref:** DON-014/008
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:19:01. **Bukatu:** 00:22:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Garagarra tostatu, egosi eta bodegako tankeetara pasatzen zuten. Lupuloa ekartzen zuten, hura mikazteko. 50 lagun inguruko lantegia zen "El León", eta langile bakoitzak 60 duro irabazten zituen asteko, gutxi gorabehera. Larunbatetan ere lan egin behar izaten zuten egun osoz, eta igandeetan ere bai batzuetan. Udararen berriz, gauez ere bai. Garagardoa kamioietan edo

trenez bidaltzen zuten Espainian barrena. 18 urterekin hasi eta 21ekin amaitu zituen bertako lanak.

8. Soldadutza Loiolan, Nafarroan eta Zaragozan

- **Erref:** DON-014/009
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:22:04. **Bukatu:** 00:23:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Juan Joxek Loiolan egin zuen soldadutza, Nafarroan eta Zaragoza aldean ere ibili zen ordea, maniobrak egiten. Uniformearekin ibiltzen ziren, baita etxera joateko ere. Loiolan zegoenean, ia egunero etxera joaten zen bazkaltzera.

9. Errazionamendua

- **Erref:** DON-014/010
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:23:58. **Bukatu:** 00:25:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Seberianak ezagutu zituen errazionamenduko kartilak. Goserik ez zuten pasa, baina lekaleak ez ziren beste zerbait jateko gogoz egoten ziren. Txokolate ontza bat izaten zuten, bi lagunentzat, "La taza" txokolatea.</p>

Transkripzioa

-Ta zuek razionamendua, razionamenduko kartillak-eta ezautu dituzue?

-Seberiana: Bai, nik bai.

-Juan Joxe: Honek ezautuko zun, ni...

-Ta, gogoratzen dezu nolakua zan? Lehengo ogi beltza ta...

-S: Bai, bai, bai.

-J.J: Orduan, ni neoni're goatzen naiz ogi beltzak-eta.

-S: Bai, bai.

-Zuek goserik ez zenuten pasako? Hemen e...

-S: Gosia ez baiño nahi dezunik'e ez, potajeik-eta ez zenun falta baiño, potajia bakarrik ez da gustatzen, beste gauzak'e bai.

-Eta zeren inbiriya eoten ziñaten?

-S: Txokolatia're ze izaten genun, ontza bat bi lagunentzako,.

-Ontza bat, bi lagunentzat?

-S: Ontza bat, bi lagunentzako.

-Eta txokolatia ze izaten zan horkua, Schuchardtekua? Ala normalian?

-S: Ez ez, bestia zan, La taza.

-La taza?

-S: La taza.

-Eta nungo txokolatia zan hori?

-S: Hoi ez dakit nungua zan baiño, ez, zean.. Irunen bazan, Elgorriaga.

-J.J: Hoi, bai, Elgorriaga zan bestia, Irunen beste fabrika bat bazan, txokolatiana.

-S: Elgorriaga, bai. Ordun ez dakit ze izango zan baiño, gutzako...
Elgorriaga.

10. Soldadutzatik baserriko lanetara

- **Erref:** DON-014/011
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:25:09. **Bukatu:** 00:28:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Soldadutzatik itzuli zenean, baserriko lanetan aritu zen Juan Joxe. Hernaniko azokatik ekartzen zituzten haziak. Otsailean letxuak landatzen zituzten, martxoan ilarrak eta bainak, babarruna maiatzan landatzen zuten, patata berriz San Jose bueltan. Aurreko urtetik soberan zituzten patatekin landatzen zuten patata berria, edota Hernaniko azokatik haziak ekarrita bestela. Behin landatuta, simaurra bota eta "gorria" harrapatzen ez bazuten, uztaileko ateratzeko moduan egon ohi ziren.

11. Garirik ez, artoa ugari

- **Erref:** DON-014/012
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:28:21. **Bukatu:** 00:31:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Aieten gari ereiterik ez zuten ezagutu, bai ordea arto ereitea. Artoa eta babarruna elkarrekin ereiten zuten, babarruna eurek jateko eta artoa animalientzat. Taloak egiteko ere erabiltzen zuten artoa, gerra garaian ogi gutxi izaten baitzen. Astegunetan babarrunak jan ohi zituzten, igandetan, berriz, garbantzuak haragi egosiarekin.

12. Baserriko lanabesak

- **Erref:** DON-014/013
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:31:00. **Bukatu:** 00:35:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Goldea, harria, sega, "napar harria", lera... lanerako tresna asko zituzten baserrian. Zokormazoa erabiltzen zuten lurra berdintzeko, eta bi hortzeko aitzurra, lurrari buelta emateko. Uztarriak Hernani edo Asteasuko uztarrigileek egiten zizkieten, ardi larruz estaltzen zituzten uztarriak, eguzkiak edo euriak egurra ez hondatzeko.</p>

13. Txerri hiltzea

- **Erref:** DON-014/014
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:35:11. **Bukatu:** 00:38:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Plazara eramaten zituzten berdurak, eta trukean olio edo azukrea ekartzen zuten etxera. Txerriak ere hil izan zituzten etxean, bertan hazitakoak. Juan Joxek txerria nola hil behar izaten zen kontatzen du. Odolkiak egunean bertan prestatu behar izaten omen ziren, txorizoa txerria hil eta handik lau egunetara.

14. "Txerrimunik", auzoan txerria banatzen

- **Erref:** DON-014/015
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:38:46. **Bukatu:** 00:41:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Guardiek baserrira jotzen zutenean paperak betetzeko, haiei ere zerbait eman behar izaten zitzaien jateko. Txerria hil orduko, zati batzuek aztertzeraz eramaten zituzten, inolako gaitzik ez zuela egiaztatzeko. Behin dena prest zutenean, auzokoei banatzen zizkieten odolkiak, urdai zatiak, solomoa... "txerrimunik" deitzen zieten horri.

15. Behiak eta txahalak etxean

- **Erref:** DON-014/016
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:41:18. **Bukatu:** 00:44:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Tratulariak Hernanin edo Tolosan egoten ziren behiak saltzen. Tratua egin ostean, al baitariak ikusi behar izaten zuen behia, aurrezki kutxara ordaintzera

joan aurretik. Etxean txahalak ere izaten zituzten, auzoko zezenek ernaltzen zituzten behiak, edo al baitariak bestela.

16. Gurelesaren irekierarekin, esnerik ezin saldu

- **Erref:** DON-014/018
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:44:39. **Bukatu:** 00:45:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Esnea ere eraman ohi zuten plazara, saltzeko. Hala ere, ez zen lan erraza izaten, "guardavinoak" egoten baitziren, kontrolatzen. Gerora, Igaran Gurelesa fabrika zabandu zutenean, egunero pasatzen zen Gurelesako kamioia esnea jasotzera, baserriz baserri.

17. Franco Aieten

- **Erref:** DON-014/020
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:46:35. **Bukatu:** 00:47:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Gerrak sufrimendu asko dakarrela uste dute. Gogoan dute nola Franco Aietera joaten zen udan, eta auzoa guardia zibilez bete ohi zela.

18. Aieten baserri ugari eta festa onak

- **Erref:** DON-014/021
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:47:26. **Bukatu:** 00:50:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Garai hartan baserri ugari zeuden auzoan, asko. Santakutzetan izaten ziren jaiak, festa polita egoten omen zen: lokots bilketa, txirrindulariak, musika... denetarik izaten zen Aieten.

19. Igandero mezara

- **Erref:** DON-014/022
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:50:18. **Bukatu:** 00:52:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa

Laburpena:

<p>Igandero joaten ziren mezara Aieteko kaperara, goizeko zazpitan eta eguerdiko hamabietan. Erlijioak indar handia zuen orduan, dena lotzen zen elizarekin, dena zen pekatu. Halere, askotan ez zituzten errespetatzen elizaren esanak.</p>

Transkripzioa

-Ta gero, zuek, mezetara ta jungo ziñaten?
-Juan Joxe: Bai, bai.
-Orduan e jende guztia juten zan?
-J.J: Bai, bai, bai.
-Ta nora juten ziñaten?
-J.J: Aiyetea. Hor do, eliza oandikan'e, hoi.
-Seberiana: Aiyetea, kapilla zan ordun e, ez zan parrokiya oan parrokiya deu baiño ordun kapilla zan.
-Eta, igandero juten ziñaten?
-S: Igandero, jun biharko!
-J.J: Biharko, ta gaiñea ordun apaiz harrek'e...
-S: Goizeko zazpitan e! Goizeko zazpitan ta geo zan bestia hamarretan.
-J.J: Bai, goizian zazpitan ta geo bestia hamarretan izaten zan ordun.
-Eta apaiza ze eoten zan, kontrolatzen?
-S: Bai, bai, bai, bai.
-J.J: Apaiza gaixtua zan hua e...
-S: Apaiza, diruzalia.
-J.J: Demostracio Iriarte.
-Ta, zorrotza hori're orduan? Gogorra?
-J.J: Hua, sermoiya ematea're pulpitoa iyotzen zanian, beti goitikan han aitzen zan lerdia daiola eh, hoi lerdia daiola ez zan gaizki aitzen hua baiño... Danai bijilatzen e, danai zea, bua! Hua...
-Orduan e, erlijioak indar haundia zun, ezta?
-J.J: Bai, bai.
-Den dena lotzen zan elizakin-eta, erlijiyuakin eta, dena pekatu?
-S: Bai, bai, bai.
-J.J: Bai, bai, bai, bai.
-Ta hor e, elkarrekin dantza itia ta? Hori're pekatu izango zan?
-S: Bai baiño jendia ibiltzen zan halare.
-J.J: Ibilli iten zian ordia, ez zun errespetatzen.
-Ez? Beste toki batzutan bai... Hemen ez?
-J.J: Bai beste toki batzutan bai [...], hemen'e, jendiak zeatzen zan ibiltzen zan e.
-S: Hemen jendia ibiltzen zan.
-Eta hemen neskaguntza-eta egoten zan? Baserrietara-eta mutillak juten ziran laguntzera etxeraiño-eta?
-S: Bai, bai, etxe ondoaiño.
-Etxe ondoraiño? Etxeraiño ez?
-S: Etxe ondoaiño, etxeaiño ez.
-Eta ez dakit e, ezkutuan ba pasiatzeko ta hola lekuri eoten zan? Bikotiak eta juten zian?
-S: Bai, hor ospital aldea, Amara aldea... Gue zea hoi zan, o zinea juten baziñan, dirua baldin bazan.
-J.J: Orduan kamiño estu-estu batzuk izaten zian gaiñea, kamiño zaharrak zian, geotzikan indako biriak dia danak oain!

20. Bizikletak eta kotxeak

- **Erref:** DON-014/023
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:52:36. **Bukatu:** 00:57:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Bizikleta ez zuen jende askok orduan, anaiak bazuen bat ona, lanera joateko erabili ohi zuena. Soldadutzatik itzuli zenerako etxean kotxea ekarria zuten, baina Juan Joxeri inoiz ez zaio gustatu izan gidatzea.

21. Trolebusen aurretik, tranbia

- **Erref:** DON-014/024
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:57:16. **Bukatu:** 00:58:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

<p>Tranbiak ezagutu zituzten, baina ez zuten erabiltzeko ohiturarik, Aieten geltokirik ez zuelako. Gerora trolebusak jarri zituzten martxan.</p>

Transkripzioa

-Eta lehen tranbiak-eta, eote(n) zian?
-Seberiana: Tranbiak bai.
-Juan Joxe: Bai, hor... bai.
-Ta, zuek erabiltzen zenuten tranbia?
-S: Bai, bai, bai, bai. Donostira jun bihar gendunian, tranbian.
-Tranbian?
-J.J: Geo tranbiak kendu zian ta trolebusak jarri zian.
-S: Trena're pasatze(n) zan han e.
-E?
-S: Trena're pasatze(n) zan e
-J.J: Bai, trena bai, oandikan'e bai. Oandikan'e trena pasatze(n) da.
-S: Oandikan'e pasatze(n) da e, topu hoi.
-A, klaro! Eta hori, ez zenuten ohituraik trenian juteko?
-S: Eske ez zon paradik-eta!
-J.J: Ez, Añorga Txikin izate(n) zun parada.
-S: Ez zun paradik.
-Ya, ta esan dezu gero, tranbia ta gero, trolebusa?
-J.J: Geo, trolebusak jarri zituzten.
-Eta hori ze izate(n) zan, doble, bi solairukua, ala?
-J.J: E, bi solairukoik ez zian izan, Donostin bai ibili zian, bi solairukuak, Donostin bertan, baiño zerian, Tolosa ta hoik, bakarrekua. Ta birian pertxak o (...), klaro, argiyen indarrakin ibiltze(n) zian haik'e. Ta pertxak (...) ta haik subak!

22. Emakumeak josten, gramofonoa piztuta

- **Erref:** DON-014/025
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:58:26. **Bukatu:** 00:59:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Afizio handirik ez zuten. Seberianak kontatzen du larunbatetan emakumeak josteko elkartzen zirenean, gramofonoa pizten zutela musika, bertsoak, trikitilariak... entzuteko. Ipuin gutxi kontatzen zizkieten txikitan, "sakamantekasa"ren ipuina dute gogoan, beldur handia pasatzen zuten ipuin hori kontatzen zietenean.

23. Konfesatzera hilero

- **Erref:** DON-014/026
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:59:41. **Bukatu:** 01:00:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Otoitzak euskaraz eta gaztelaniaz ikasi zituzten, apaizak euskaraz irakatsi zizkien eta eskolan, berriz, gaztelaniaz irakasten zizkieten. Hilero joan behar izaten zuten konfesatzera, baina Juan Joxek behintzat, gezur gehiago esaten zizkion egiak baino.

24. Baserritarren kofradia

- **Erref:** DON-014/027
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:00:42. **Bukatu:** 01:01:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Garai batean inguruan bazen baserritarren kofradia bat, auzolanaren bidez funtzionatzen zuena. Baserriren bat erretzen zenean, diru eskean ibiltzen ziren, etxez etxe.</p>

Transkripzioa

-Eta baserritarren kofradiaik-edo badao? Bazeon lehen, edo?

-Juan Joxe: Lehenoz bazan, bai.

-Bazan?

-Seberiana: Bai, lehen-lehen.

-J.J: Bai baiño haik danak galdu zian e.

-Eta, nola izaten zan, ze, zertako edo? Nola juntatzen ziñaten?

-J.J: Hoik, izaten zan basarriya, basarritarrak, ba konpaziyo batea ganaua zeatzen baldin bazan o, behi bat o hiltzen bazan e, bai etxian euki ta geo etxian hiltzen bazenun, hiltzea baldin bazijuan behiya, ta, zea, hoi zuk etxian hiltzen baldin bazenun behiya hua, haragi hua geo kofradiako o han partitu iten zan.

-S: Partitu iten zan.

-J.J: Bai, ta beti 'ayuda' ematen zizuen.

-Ona bazeon?
-J.J: Bai, ona bazeon. Ta geo beti 'ayuda' ematen zizuen geo, beste bat ekartzeko eo, baiño bai, ez zizuen ematen bihar haiña ta gutxiyoik'e...
-Eta baserriak erretzen zianian-eta bazeon e, laguntzaik-edo eoten zan?
-J.J: Ordun? Zea ibiltzen zian, etxe-erre eskian ibiltzen zian.
-S: Bai.
-J.J: Eskian ibiltzen zan.
-Auzo? Etxez etxe? Baserriz baserri?
-S: Bai.
-J.J: Bai, bai.

25. Tabernak, jatetxeak eta sagardotegiak

- **Erref:** DON-014/028
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 01:01:55. **Bukatu:** 01:03:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Taberna, jatetxe eta sagardotegi ugari zeuden Aieten. Sagardotegietara gizonezkoak bakarrik joaten ziren.

26. Donostiara arrain bila

- **Erref:** DON-014/030
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 01:03:52. **Bukatu:** 01:06:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Arraina Donostiatik eramaten zuten etxera. Otarrak buruan hartuta Añorgaraino joaten zen jendea, arraina eramanez. Ogia, azukrea eta abar estraperloan erosten zuten, gatza ez, nahikoa bazelako.

27. Etxean dolarerik ez, auzoan bai

- **Erref:** DON-014/031
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 01:06:04. **Bukatu:** 01:08:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Gabonetan karakolak eta konpota jateko ohitura zuten. Etxean ez zuten

dolarerik, baina auzoan bai, eta askotan pitarra egiten zuten bertan etxerako.</p>

Transkripzioa

- Ta zuek erlerik o erlauntzarik eta hemen inguruan e?
- Juan Joxe: Erlia, erliak horren gizonak euki zitun. Gue etxian. Ta eztiya ez askotan, baiño behin o behin zeatu zun, eztiya e, in zuen. Ni eztizalia ez naiz izandu behiñ'e, ta. Horren gizona bai.
- Eta gabonetan-eta hola jateko janari espeziala, ez? Jarriko zan bereziya, ta? Zer, zer jaten zan? Ze ohitura zeon?
- Seberiana: Izaten zan...
- J.J: Garai hartan, kaakolak'e bai e.
- Gabonetan, bai e?
- J.J: Bai, hoi zea zan, gabon eunian kaakol, gue ama zanak kaakola joe, urte askotan jartzen zitun.
- Eta ze gehio? Intxaur saltsa ta? Bazeon ohitura iteko intxaur saltsa?
- S: Konpota, intxaur saltsa ez, konpota izaten zan. Ta geo turroiya ta, holako... Pikuk eta, bai.
- Pikuak?
- J.J: Piku lehor hoik.
- Eta urrak-eta? Intxaurrak-eta? Hori...
- J.J: Bai.
- Zuek bazenituzten arbolak eta?
- J.J: Bai, bazian.
- S: Pikua ta, sagarra ta, udariak eta, hoik bazien.
- Ta zuek sagardorik ein dezue, sekula? Etxian?
- J.J: Bai, bai. Bueno, sagardua, etxian tolaiek ez gendun guk baiño, auzuan bazan tolaria.
- S: Atzeko zean, bai.
- J.J: Ta han in ta, ordun pitarra gue etxeako jana pitarra izaten zan, saardo, sagarrai ura bota ta geo, klaro.
- Mosto antzeko...?
- J.J: Bai, hori da. Ta geo hua ba barrikatikan txarroa atea, txarro batea atea ta, mahaiyan jartzen zan hua ta, baso batetikan ean ta, berriz'e hua eatian segi, berriz'e zea billa.
- S: Barrika.

28. Urik ez etxean, argindarra bai

- **Erref:** DON-014/032
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:08:11. **Bukatu:** 01:10:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua

Laburpena:

Goizean goiz jaikitzen ziren, eta goiz oheratu. Ur bila iturrira jo behar izaten zuten, etxean urik ez zutelako, argindarra bazuten baina askotan hondatzen zen linea, eta linea pribatua zenez beraiek konpondu behar izaten zuten beti. Beheko sua ez zuten ezagutu, ekonomika zuten sukaldean.

29. Garaiko janzkera

- **Erref:** DON-014/034
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:11:25. **Bukatu:** 01:13:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gizonezkoek abarkak, maoizko galtzak eta txapela janzten zituzten, emakumezkoak aldiz goitik behera estalita joan ohi ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-07-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com